

Eskolaz kanpoko ekintzetako begiraleak kontratatzeko zerbitzua



IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA

1. IGEak IFK zenbakia izan behar du eta DENON ESKOLAn federatuta egon behar du.
2. IGEak aukeratzen ditu begiraleak.
3. IGEak zerbitzua emateko akordioa sinatuko du federazioarekin.
4. IGEak bere gain hartuko ditu langileen kontratazio, indemnizazio, kanporatze, senda-agirien data, baja-aldia... eta DENON ESKOLAREN gestioari dagozkion gastu osoak.

Astean ordu eta erdiko kontratuak arte	Astean ordu eta erdi eta lau ordu arteko kontratuak	Astean lau ordu edo gehiagoko kontratuak	Autonomoen PFEZ aitortpena
7 € hilean begiraleko	14 € hilean begiraleko	27 € hilean begiraleko	7 € hilean begiraleko

5. IGE bakoitzak begirale bakoitzaren datu pertsonalak eta kontratuaren baldintzak (lanegunak, ordutegia,...) jasotzen dituen datu-fitxa bete eta DENON ESKOLAN aurkeztuko du. Informazio hori guztia kontratua hasi baino 10 egun lehenago heldu behar da federaziora.
6. IGEak, begiraleekin adostu ondoren, kontratuaren baldintzak ezartzen ditu. Baldintza horiek lanbide arteko gutxieneko soldata errespetatu behar dute.
7. Langile/begiraleen zereginen, ordutegiaren,... betetzearen jarraipena IGEak egingo du
8. IGEak espresuki ardura horretarako pertsona bat ezarriko du. Pertsona horrek mantenduko du kontaktua federazioarekin eta berak jakinaraziko ditu kontratuei dagozkien aldaketak. Federazioak antolatzen dituen informazio bileretara joan beharko du eta IGEa eta federazioaren arteko harremanaren arduraduna izango da. **Hark idatziz bidalitako jakinarazpenak soilik hartuko dira kontuan.**
9. IGEak jarduera honetarako erabiliko diren posta elektronikoa eta kontu zenbakia jakinaraziko dizkio DENON ESKOLARI.
10. IGEak begiraleak kontraturik dauden jardueretarako kontraturik ez dauden bestelako pertsonak erabiliko ez dituela bermatzen du, beraz, horrelakoren kasurik ematekotan erator litezkeen isunak bere gain hartuko lituzke.
11. IGEak begiraleen lan kontratuaren hasiera eta bukaera zehaztuko ditu.
12. Lanaldi partzialeko lan kontratuak izango dira, zerbitzu edo obra-kontratu modalitatean (501).
13. **IGEak hasieran kontratua eta bukaeran nominak eta azken kitatzeak jasoko ditu DENON ESKOLAN eta ondoren langileei kopia bana eman eta federazioari ere kopia bana, langileek sinaturikoak, bueltatuko dizkio.**
14. Gaixoaldi-baja, lan istripu-baja, istripu-baja ematen direnean Federazioak ez du ordezkorik ezartzen beraz IGEak berak bilatu beharko luke nahi izanez gero. Kasu horretan berehala federazioarekin kontaktuan jarri eta kontratazio berria egiteko prozedura abiatu beharko luke.
15. Langileak baja hartzen badu IGEak baja parte federaziora helarazi beharko du. **Langile guztiek baja parte bana eman behar dute kontratuarekin lan egiten duen toki bakoitzean.** Izapide honetarako epea 5 egunetakoa da.

16. IGEak bere gain hartuko du begiraleen kontrataziotik sor daitezkeen bestelako gastuak (kontratu berriak, kontratuetak aldaketak,...). Kontratuaren edozein moldaketa 5 eguneko aurrerapenez jakinaraziko du DENON ESKOLAn IGEak ezarritako ordezkariak eta edozein kasutan 5 euroko kostua izango du moldaketa bakoitzak.

DENON ESKOLA

1. DENON ESKOLAK kontratazio zerbitzuaren gaineko interesa duten IGEei informazio osoa eskainiko die.
2. DENON ESKOLAK begiraleen kontratazioa kudeatuko du: kontratuak, nominak, altak, bajak...
3. DENON ESKOLAK IGEekin harremanetan izateko pertsona bat izendatuko du eta horretarako dauzkan bide guztiak erraztuko ditu (bulegoan bertan, telefonoz, posta elektronikoz, informazio bilerak,...).
4. DENON ESKOLAK hilabete bukaeran IGEak zehaztutako posta elektronikora bidaliko ditu kontratazio zerbitzuak hilabete horretan eragindako kostuak zehaztuko dituen txostena. **IGEaren arduradunak txostena aztertu eta 48 ordu izango ditu jasotzetik bertan ikusten duen edozein akats jakinarazteko, bestela onartutzat hartuko da.**
5. **DENON ESKOLAK IGEak ezarritako kontu zenbakitik hartuko du txostenean zehaztutako kopurua eta jarraian begirale/langileen nominak ordainduko ditu hurrengo hilabeteko lehen astean.**
6. DENON ESKOLAK bere gain hartuko du lan prebentzio plana.
7. DENON ESKOLAK aholkularitza eskainiko die IGEei zerbitzuaren garapenean sor daitezkeen edozein gairen inguruan.
8. DENON ESKOLAK ikasturte bukaeran, edo kontratua eteteen, zerbitzuak eragindako zenbateko guztiak jasoko dituen ordainagiria helaraziko dio IGEari.
9. **DENON ESKOLAK indarrean dagoen legediak ezartzen duen denboraz artxibatuko ditu kontratazioei dagozkien dokumentu guztiak.**

BEGIRALEAK

1. Begiraleek haien datu guztiak egunean izango dituzte IGEan eta edozein aldaketa egotekotan jakinaraziko dute.
2. Begiraleek IGEaren zaintzapean beteko dituzte haien zereginak IGEa baita zeregin horiek zehaztuko dituenak.
4. Edozein baja izatekotan (gaixoaldi-baja, lan istripu-baja, istripu-baja) begiraleak IGEari helaraziko dio baja parte. **Langile guztiak baja parte bana eman behar dute kontratuarekin lan egiten duten toki bakoitzean.** Izapide honetarako epea 5 egunetako da.
5. Konfirmazio parteak, ezgaitasun egoera luzatzen den kasuetan, eta alta parteak ere IGEko arduradunari eman beharko zaizkio.
6. **Begiraleek haiei dagozkien dokumentazioa (kontratua hasieran eta nominak eta azken kitatzea) sinatu beharko dute IGEko arduradunak horretarako deitzen dituenetan.**